

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2017/18

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

1. maila

**IRAKASGAIA**

25943 - Gizarte Langintzarako Psikologia

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek bizitza osoan zehar garatzen diren oinarrizko prozesuak kontuan izanda gizakiaren aspektu sozial eta kognitiboen azterketa du helburu. Hau lortzeko garapenaren psikologiaren historia eta teoria eta eredu ezberdinek proposatutako oinarri teorikorekin ematen zaio hasiera irakasgaiari.

Bizitzan zehar eremu emozional eta kognitiboan suertatzen diren etengabeko aldaketa ebolutiboak jorratuko dira.

Bukatzeko, prozesu kognitibo eta psikosozialak landuko dira bizitzan zehar azaldu ahal diren garapenaren zailtasunak eta zein ingurune sozialetan gertatzen diren bereziki kontuan harturik.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**HELBURUAK:**

- Ikasgaiaren edukiak ikaslearen motibazioa eta sensibilizazioa giza garapenari buruz bizitza ziklo osoan sustatu nahi du, ondoren eskuhartze egokia bultzatuz behar izanez gero.
  - Garapenean suertatzen diren zailtasun esanguratsuen analisiak egiteko gaitasuna sustatu, hala nola, ikaskuntzarako zailtasunak haurtzaroen, egoera ansiogenoak, portaeran arazoak, nerabezaroan eta heldu aroan aurkitzen diren arazo psikologikoak zein zahartzaroko gaixotasunak.
  - Psikopatologia arloan bizitza zikloan gertatzen diren depresio eta neurosi zein beste arazo larriagoak horien artean psikosi eta eskizofrenia zertan datzan sakondu eta hausnartu.
  - Drogen eta beste zenbait substantzi toxikoen kontsumoak dakartzan portaera nahasketen eskuhartze eta prebentzioa
  - Giza garapenaz arduratzen diren teoria nagusien oinarrizko ezaugarriak ezagutu.
  - Hasierako garapenaren aroa keta bere ezaugarriak identifikatu.
  - Hasierako garapenaren aroan gertatzen diren aldaketa kognitibo, emozionala eta afektiboak ezagutu eta ulertu.
  - Haur pentsamendua ezagutu eta interpretatu, hala nola hizkuntzaz eta bere mundu sozial eta afektiboaren ulermenaz jabetzeko prozesuak.
  - Nerabetasunean gertatzen diren aldaketa biologiko, kognitibo eta sozio-afektiboak identifikatu eta eragiten dituzten eraldaketak hausnartu.
  - Heldutasun eta zahartzaroen eremu ezberdinetan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuenak ezagutu eta ulertu
  - Garapen psikologikoa ahalbideratzen duen ezaugarri sozial, fisiko eta kulturalaz osatutako multzotzat ulertzea testuingurunea.
  - Garapen fisiko, psikiko eta sozialerako arrisku faktore posibleak identifikatu.
- Ikasle, irakasgai honetan jokaeraren adierazpen eta jarrera mota ezberdinen ikuspuntu egituratua, alde estrukturala zein funtzionala, eskaintzen saiatuko da. Kurtsoa amaitzean ikasleak oinarriko kontzeptu psikologikoak (nortasuna eta bere egitura, sentimen eta pertzepzioa, motibazio eta gaitasunak, jokaera, bizitza afektiboa) eta korrante psikologikoen ezberdinek proposatzen duten esku-hartzea behar beste ezagutu behar du. Era berean, giza garapenaren aroak eta giza psikologiari dagozkion ezberdintasunak ezagutu behar ditu.
- Garapen psikologikoa era ezberdinez parte hartzen duten faktoreak eta bere garrantzia aro bakoitzean identifikatzeko gaitasuna.
  - Oinarrizko prozesu psikologikoak bizitzan zehar nola sortu, garatu eta eraldatzen diren ulertzeko gaitasuna.
  - Garapenaren aro bakoitzeko oinarrizko ezaugarriak aztertzeke gaitasuna.
  - Gizakiaren garapenean gerta daitezkeen arrisku adierazleak identifikatzeko gaitasuna

**Gaitasunak**

- Bizi zikloaren zein etapatan dagoen kontuan harturik pertsonen garapen eta independentzia bultzatu.
- Garapenaren prozesu desegokiak eragin ahal dituzten egoera pertsonalak zein kontestualak antzeman eta zailtasun hauek gainditzeko esku-hartzea diseinatu .
- Esku-hartzerako informazio eraginkorra aukeratu
- Pertsonen garapena bultzatu eta hobetzen duten ekimenak proposatu eta aurrera eramateko diziplina anitzeko taldeetan lan egin era eraginkorrez.
- Pertsonen aniztasuna errespetu eta ulertzeko jarrera zein konpromiso etikoa .
- Profesional ezberdinen artean elkarlana eta elkartruke bideratzen duen jarrera profesional irekia garatu.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

### 1. Gaia

Gizarte Lanerako Psikologiak egiten duten ekarpena.

### 2. Gaia

Psikologiaren kontzeptua. Teoria psikologiko ezberdinen azterketa: Psikoanalisi, Konduktismoa, Humanista, Kognitiboa, Ekologikoa...

### 3. Gaia

Bizi-zikloaren etapa ezberdinetan (haurtzaro, nerabetasun, gaztetasun, heldutasun eta zahartzaro) ematen den garapen fisiko, psikologiko, sozial eta nortasunarena

### 4. Gaia

Garapen etapei lotutako zailtasunak: elikadura nahasteak, ezgaitasun mentala, autismoa, hiperaktibitatea, dementzia.

### 5. Gaia

Nahaste psikologiko nagusietarako hurbilketa (gogo-aldarte, antsietate nahasteak, fobiak, nahaste osbesibokompulsiboa), eskizofrenia eta bestelako nahaste psikotikoak (nahaste eskizoafektibo eta nahaste deliranteak)

### 6. Gaia

Sustantzien erabilpenarekin (alkohola eta bestelako drogak) zerikusi duten zenbait buruko eta jokaeraren nahasteak

## METODOLOGIA

Eduki teorikoak saio magistralen bidez irakatsiko dira idatzizko testu eta bestelako ikus-entzunezko materialekin osatuz. Era berean hauetako zenbait eduki talde-dinamiaren bidez edota bestelako metodologia aktiboekin landuko dira. Eduki praktikoak irakasleak proposatutako zeregin bat burutu (garatu eta prestatu) eta talde aurrean aurkeztearen bidez izango da.

Amaitzeko, saio presentzialak osatu eta ikasle eta irakasle arteko komunikazio erraztuko duen plataforma birtuala erabiliko da; era berean ikasleak bete beharko dituen aktibitateak izango dira.

- Kasu-praktikoen azterketak

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

### Legenda:

M: Maistrala  
S: Mintecia  
GA: Gelako p.  
GL: Laborateiko p.  
GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra  
TI: Tailer Ind.  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioa 4 ardatzetan oinarritu da:

- 1.- Saio magistraletan parte hartu (%20)
- 2.- Aktibitate praktikoa garatu eta aurkeztu (%30)
- 3.- Plataforma birtualean proposatutako aktibitateetan parte hartu (%25)
- 4.- Idatzizko froga egin (%25)

Irakasgaia ebaluazio mixtoa eredua jarraituko nagusiki eta ondorengo aspektuetan oinarrituko da:

- Eskolan emnadako gaien inguruan azterketa finalak azken notan %50aren balio izango du.
- Saio praktikoetan burutatutako zeregin praktikoak azken notan %20aren balio izango du.
- Ikasle-talde txikiekin izandako derrigorrezko tutoritza saioetan parte hartzeak azken notan %10aren balio izango du.
- Lan autonomoa Psikologia irakasgaiaren gakoaren 5 orrien laburpena izango da eta azken notan %35aren balioa izango du. Kontuan izango da: motibazioa, inetersa, jarrerak, parte hartzea eta asistentzia.

- Irakasgaia gainditzeko zati guztiak gainditurik izan behar dira. Deiald batetik bestera gorde egiten dira notak ez berzi ikasturte batetik bestera.

"Deialdiari uko egiteko errenuntzia idatzi bat aurkeztu beharko zaio irakasleari, azterketa epea hasi baino 10 egun lehenago behintzat".

Beste aldetik, ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako &#8220;Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua&#8221; dela medio (ikus web gunea).

-Azken kasu honetan, ikaslek dituen gaitasun eta ezagupenak azken froga bakar baten bidez ta froga hau oastauko da azken notan %100aren balio izateko.

-Sistema mixtoa jarraitzen duen ikaslea, ohiko deialdiari uko egiteko, azken frogara ez aurkeztearekin nahikoa da.

Kalifikazioa: EZ AURKEZTUA izango da (Egoera ohikoena).

Ebauazio finalen sistema jarraitzen duen ikasleak, ohiko deialdiari uko egiteko ez aurkeztearekin nahikoa da.

## **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ikasleek aukera izango dute deialdiari uko egiteko. Horretarako eskaria irakasgaiko irakasleari egin beharko diote idatzi bidez eta azterketetarako zehaztutako garai ofiziala hasi baino gutxienez hamar egun lehenago, betiere, irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan bestelako eperik zehaztu ezean.

## **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Irakasgaiaren apunteak

## **BIBLIOGRAFIA**

### **Oinarrizko bibliografia**

- Berk, L. E. (1989). Child Development. Pearson Education
- Delval, J. (2002). El desarrollo Humano. Siglo XXI: Madrid
- Stassen, K. (2003). Psicología del Desarrollo: Infancia y adolescencia. Berger: Thompson
- Merino, C. et al. (1995). El niño de 0 a 3 años. Escuela Española: Madrid
- Mietzel, G. (2005). Claves de la Psicología Evolutiva. Infancia y juventud. Barcelona: Herder
- Palacios, J.; Marchesi, A.; Coll, C. (1997). Garapen psikologikoa eta hezkuntza I. Psikologia Ebolutiboa.
- Paz, M.; Bermudez, A. M. (2004). Manual de Psicología Infantil. Biblioteca Nueva: Madrid
- Perinat, A. (2001). Psicología del Desarrollo I. UOC: Barcelona
- Vasta, R.; Haith, M.M.; Miller, S.A. (1996). Psicología Infantil. Ariel: Barcelona
- Rodrigo, M.J.; Palacios, J. (2001). Familia eta giza garapena. UEU: Bilbao
- AA.VV (2008): Intervención en exclusión social y drogodependencias, Universidad de Deusto, Bilbao
- CARRETERO, M., PALACIOS, J. Y MARCHESI, A. (1986) : Psicología Evolutiva, 3, Adolescencia, madurez y senectud, Alianza, Madrid.
- DSM-IV (1997) :Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales, APA, Masson, Barcelona.
- HERBERT, MARTÍN (1987) : Psicología del trabajo Social, Pirámide, Madrid
- LARA SÁNCHEZ, F. (2004) :Psicología para el trabajo Social, Aljibe, Archidona, Málaga

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

ARAZ, E. Y BERLANGA, Á. (2006): Guía práctica para el manejo de la Esquizofrenia. Manual para la familia y el cuidador: Madrid: Pirámide.

CABALLO, V.E. y SIMÓN, M.A. (2001). Manual de Psicología Clínica Infantil y del Adolescente. Trastornos Específicos. Madrid: Pirámide.

GARCIA-MERITA, M. (2007). Tratando... esquizofrenia. Ese desconocido mal. Madrid: Pirámide. Psicología Recursos Terapéuticos

### **Aldizkariak**

- Psychologies
- Psicología Práctica
- Super Nanny
- Revista Electrónica Psicología Científica.com (Pserinfo)
- Psicología Educativa
- Anales de psicología
- INFOCOPONLINE
- Revista Salud Mental Info

### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.cop.es> (colegio oficial de psicólogos)  
<http://www.rediris.es/list/info/psicoanalisis.html>(psicoanálisis)  
<http://www.rediris.es/list/info/psi-cognitiva.html> (ps. cognitiva)  
<http://www.rediris.es/list/info/psicoeduc.html> (ps. de la educación)  
<http://www.psiquiatria.com/psiquiatria>  
[www.psicologia.nu](http://www.psicologia.nu)  
[revista psicologia.com](http://revista-psicologia.com)

## OHARRAK

No hay observaciones